

HIZKUNTZ ESKUBIDEEN DEKLARAZIO UNIBERTSALA. 1996

Atarikoa

Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsal hau sinatzen dugun instituzioek eta gobernuz kanpoko erakundeek, Bartze-lonan bildurik, 1996ko ekainaren 6tik 9ra,

Kontuan izanik 1948ko Giza Eskubideen Deklarazio Uniber-tsalak bere hitzaurrean “gizakien oinarrizko eskubideetan, gi-zakiaren duintasun eta balioan eta gizonen eta emakumeen es-kubideen arteko berdintasunean duten fedea” agertzen duela, eta bigarren artikuluan jasotzen duela Deklarazioan adierazita-ko eskubide eta askatasunak izaki orori dagozkiola, eta ez dela inor bereiziko arraza, larru-kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, politikako edo bestelako iritzia, sorterrria edo gizarteko jatorria, ekonomi maila, jaiotza edo beste inolako gorabeheragatik;

Kontuan izanik 1966ko abenduaren 16ko Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunak (27. artikulua) eta data bereko Eskubide Ekonomiko Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Itunak beren hitzaurreetan jasotzen dutela gizakia ezin dela libre izan eskubide zibil, politikoez, ekonomikoez, sozialez eta kulturalaz gozatzeko bidea ematen dioten baldintzak sortzen ez badira;

Kontuan izanik Nazio Batuen Erakundearen 1992ko aben-duaren 18ko Ebazpena, Gutxiengo Nazional edo Etniko, Erli-jioso eta Linguistikoetako kide diren Pertsonen Eskubideei buruzko Deklarazioa onartzen duena;

Kontuan izanik Europako Kontseiluaren deklarazioak eta hitzarmenak, besteek beste, 1950eko azaroaren 14ko Giza Eskubideen eta Oinarriko Askatasunen Babeserako Europako Hitzarmena (14. artikulua); 1992ko ekainaren 29ko Europako Kontseiluaren Ministro Batzordearen Konbentzioa, zeinaren bidez onetsi baitzen Erregio edo Gutxiengoaren Hizkuntzen Europako Ituna; 1993ko urriaren 9ko Europako Kontseiluaren Gailurraren Deklarazioa, gutxiengo nazionalen buruzkoa; eta 1994ko Gutxiengo Nazionalen Babeserako hitzarmen-markoa;

Kontuan izanik PEN International erakundearen Santiago de Compostelako Deklarazioa, eta 1993ko abenduaren 15eko PEN International erakundeko Itzulpen eta Hizkuntza-eskubideen Batzordearen Deklarazioa, hizkuntza-eskubideei buruzko mundu mailako konferentzia egiteko proposamenari buruzkoa; Kontuan izanik Brasilgo Recifeko Deklarazioan Kulturarteko Komunikazioa Garatzeko Nazioarteko Elkartek Nazio Batuen Erakundeari gomendatzen diola beharrezko neurriak hartzean Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala onartzeko eta aplikatzeko;

Kontuan izanik 1989ko ekainaren 26ko Nazioarteko Lanaren Erakundearen 169. Konbentzioa herrialde independentetako herri indigenei buruzkoa;

Kontuan izanik 1990eko maiatzeko Herrien Eskubide Kolektiboen Deklarazio Unibertsalaren arabera edozein herri eskubidea duela bere kultura, hizkuntza eta antolatze-erak adierazteko eta garatzeko, eta hori lortzeko, politikan, hizkuntzan, komunikazioan eta administrazio publikoetako egituretan, marko politiko desberdinetan, bere burua hornitzeko;

Kontuan izanik Hungariako Pecs hirian 1991ko abuztuaren 16an Hizkuntza Bizietako Irakasleen Nazioarteko Federazioaren Biltzar Orokorak egindako azken Deklarazioa, zein-

nean gomendatzen den hizkuntza-eskubideak gizabanakoaren oinarritzko eskubide gisa har daitezela;

Kontuan izanik Nazio Batuen Erakundearen 1994ko apirilaren 20ko Ekonomia eta Gizarte Kontseiluaren Giza Eskubideen Herri Indigenen Eskubideei buruzko txostena, zeinean norbanakoen eskubideak eskubide kolektiboen arabera baloratzen baitira;

Kontuan izanik 1995eko irailaren 18an 1.278. bilkuran onetsitako Giza Eskubideen Amerikako Batzordearen Deklarazioaren zirriborroa, Herri Indigenen Eskubideei buruzkoa;

Kontuan izanik munduko hizkuntza mehatxatu gehienak subiranotasunik gabeko herriei dagozkiela, eta hizkuntza horien garapena eragozten duten eta hizkuntza-ordezkapena bizkortzen duten faktore garrantzitsuenak autogobernu falta eta Estatuek beren egitura politiko-administratiboa edota hizkuntza inposatzeko abiatu dituzten politikak direla;

Kontuan izanik inbasioak, kolonizazioak eta okupazioak, bai eta menderatze politiko, ekonomiko edo sozialek ere, sarritan hizkuntza arrotza inposatzea dakartela, edota gutxienez hizkuntzen balioen pertzepzioa desitxuratzea eta hitzunen hizkuntza-leialtasunari kalte egiten dioten hizkuntza-jarrera hierarkizatzaileak; eta kontuan izanik arrazoi horiexengatik subiranotasunera heldu diren herri batzuk hizkuntza-ordezkatze prozesuan murgildurik daudela, antzinako botere kolonizatzaile edo inperialaren hizkuntzaren alde egiten duen politikarengatik;

Kontuan izanik unibertsalismoa homogeneousazio eta isolamendu eskusibistarako joerak gaindituko dituen hizkuntza-aniztasunaren eta aniztasun kulturalaren ikusmoldean oinarritu behar dela.

Kontuan izanik hizkuntza-komunitateen arteko bizikidetzak baketsua bermatzeko ezinbestekoa dela goi-mailako printzipio

batzuk aurkitzea, hizkuntza guztien sustapena, errespetua eta gizarte-erabilera publiko zein pribatua ziurta daitezen;

Kontuan izanik hizkuntzaz kanpoko hainbat faktorek (historikoak, politikoak, lurraldearekin lotutakoak, demografikoak, ekonomikoak, soziokulturalak, soziolinguistikoak eta jarrera kolektiboek dagozkienak) hizkuntza askoren desagertzea, bazterketa eta degradazioa eragiten duten arazoak sortzen dituztela, eta, hortaz, beharrezkoa dela hizkuntza-eskubideak ikuspegi global batetik planteatzea, kasu bakoitzean konponbide berezi eta egokiak aplikatu ahal izateko;

Oharturik ezinbestekoa dela Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala, hizkuntzen arteko desorekak zuzentzeko, eta horrela hizkuntza guztien errespetua -zein garapen osoa bermatzeko, bai eta munduan hizkuntza-bake bidezkoa eta zuzenerako printzipioak ezartzeko ere, bizikidetzaren oinarritzko faktore gisa;

ONDOKOA AITORTU NAHI DUGU

Sarrera:

Arestian azaldutako gogoetak kontuan izanik, hizkuntza bakoitzaren egoera faktore ugariaren bateratze eta elkarrekintzen emaitza da: faktore politiko-juridikoak, ideologikoak eta historikoak, demografikoak eta lurraldekoak, ekonomikoak eta sozialak, kulturalak, linguistikoak, eta azkenik subjektiboak.

Engungo egoeraren ezaugarri zehatzak honako hauek dira:

- I. Estatu gehienen sekulako joera bateratzailea. Horrek desberdintasuna murriztera eta kultura- zein hizkuntza-aniztasunaren aurkako jarrerak laguntzera darama.
- II. Ekonomiaren mundializazio-prozesua, eta ondorioz, informazioaren, komunikazioaren eta kulturaren merkatuarena. Horrek hankaz gora jartzen ditu hizkuntza-

komunitate bakoitzaren barne-kohesioa bermatzen duten harreman-esparruak eta elkarreraginak.

- III. Nazioz gaindiko talde ekonomikoek bultzatutako hazkunde-eredu ekonomizista. Horrek desaraupena aurreakuntzarekin lortu nahi du, bai eta indibidualismo lehiakorra askatasunarekin ere. Ondorioz, desberdintasun ekonomiko, sozial, kultural eta linguistiko larriak eta handiak sortzen ditu.

Une honetan hizkuntza-komunitateek mehatxuak jasaten dituzte, dela autogobernurik ezarengatik, dela demografia murritzarengatik edota demografiaren zati bat edo osoa sakabanatua egoteagatik, dela kodifikatu gabeko hizkuntza izateagatik, edota nagusiaren aurkako kultura-eredua izateagatik. Mehatxu horien ondorioz ezinezkoa gertatzen zaie hizkuntza askori bizi-tzea edo garatzea, honako ardatz hauek kontuan hartzen ez badira:

- I. Politikaren ikuspegitik, hizkuntza-aniztasuna antolatze-ko eredu berri bat sortzea, egun dagoen hazkunde-eredu berrian hizkuntza-komunitateei parte-hartze eraginkorra ahalbidetzeko.
- II. Kulturaren ikuspegitik, munduko komunikazio-espazioa herri guztien eta garapen-prozesuan dauden hizkuntza-komunitate eta pertsonen parte-hartze orekatuarekin guztiz bateragarri egitea.
- III. Ekonomiaren ikuspegitik, garapen jasangarria bideratzea, guztien partaidetzan, gizartearen oreka ekologikoa-ren errespetuan eta hizkuntza zein kultura guztien arteko bidezko harremanetan oinarriturik.

Horregatik guztia-rengatik, Deklarazioak hizkuntza-komunitateak hartzen ditu abiapuntu, ez, ordea, Estatuak; eta gizateria osoarentzako garapen jasangarria eta orekatua bermatzeko gauza diren nazioarteko erakundeak indartzeko ahaleaginean

sartzen da. Halaber, helburuetako bat errespetuan, bizikidetzan eta elkarrekiko onuretan oinarritutako hizkuntza-aniztasunaren antolaketa politikorako marko bat ahalbidetzea ere bada.

ATARIKO TITULUA

Kontzeptuen zehazpena:

1. artikulua

1.- Deklarazio honetan hizkuntza-komunitatea aipatzean esan nahi da, edozein gizarte, historian zehar lur eremu zehatz batean finkatua eremu hori errekonozitua izan ala ez, bere burua herritzat daukana, eta hizkuntza komun bat garatu duena, kideen arteko komunikazio naturalerako eta kultur kohesiorako bide bezala. Lurralde bateko berezko hizkuntza edo hizkuntza propioa deizioekin, lurralde horretan historian zehar ezarritako komunitatearen mintzairari egiten zaio erreferentzia.

2.- Deklarazio honek abiapuntutzat du hizkuntza-eskubideak indibidualak eta kolektiboak direla. Horrela, hizkuntza-eskubideen betetasunaren erreferentetzat hizkuntza komunitate historiko bat bere lurralde-eremuan hartzen du, beti ere, eremu hau ulerturik komunitate hori bizi den eremu geografikoa ez ezik, bai eta hizkuntzaren garapen osorako ezinbestekoa den espazio sozial eta funtzional gisa ere. Erreferente horretatik abiatuta ezar daitezke mailakatze edo continuum modura artikulua honetako 5. puntuan aipatzen diren hizkuntza-taldeak eta zein bere komunitatearen lurraldetik at dauden pertsonen eskubideak.

3.- Deklarazio honen arabera ondoko baldintzak betetzen dituzten pertsona multzoak bere lurralde propioan daude eta hizkuntza-komunitate bateko kide dira:

- I. Muga politiko edo administratiboen ondorioz bere komunitatearen gune nagusitik bereizita daudenak;
- II. Eremu geografiko txiki batean historikoki beste hizkuntza komunitateetako kideez inguraturik kokaturik daudenak;
- II. Antzeko historikotasuna duten beste hizkuntza-komunitateetako kideekin batera partekatzen duten eremu geografikoan finkatuta daudenak.

4.- Deklarazio honen ondorioetarako bere lurralde historikoan dauden hizkuntza-komunitatetzat hartuko dira herri nomadak beren joan-etorrien eremuetan, eta kokaleku barreiatuetan bizi diren herriak ere.

5.- Deklarazio honek hizkuntza-taldetzat dauka beste hizkuntza-komunitate baten lur eremuan kokatuta dagoen eta hizkuntza bera duen edozein giza talde, beti ere, lehenaren adinako historikotasunik gabekoa; izan ere, halakoak dira etorrikin, errefuxiatuak, deportatuak eta diasporetako kideak.

2. artikulua

1.- Deklarazio honek berresten du ezen, hizkuntza-komunitate eta hizkuntza-talde desberdinak lurralde berean kokaturik daudenean, Deklarazio honetan zehaztutako eskubideen egikaritza, denon arteko errespetuaren eta berme demokratiko handien araberaren arautuko dela.

2.- Behar bezalako oreka soziolinguistikoa xedatzerakoan, hain zuzen ere, hizkuntza-komunitateen, hizkuntza-taldeen eta kolektibo horiek osatzen dituzten pertsonen eskubideen artikulazio egokia, haien historikotasun erlatiboaz eta demokratikoki adierazitako borondateaz gain, helburu berdintzaileei begirako tratu orekatzailea ekarriko dituzten faktoreak ere kontuan hartu behar dira; esate baterako, komunitate eta talde desberdinak elkarrekin bizitzera bultzatu dituzten mi-

grazioen indarrezko izaera, edota talde horien maila politiko, sozio-ekonomiko edo kultural eskasa.

3. artikulua

1.- Deklarazio honek eskubide pertsonal besterenezintzat, eta edozein egoeratan egikaritzeko modukotzat dauzka honako hauek:

- I. Hizkuntza-komunitate bateko kideztat aitortua izateko eskubidea;
- II. Hala jendaurrean nola maila pribatuan hizkuntza erabiltzeko eskubidea;
- III. Norberaren izena erabiltzeko eskubidea;
- IV. Jatorrizko hizkuntza-komunitateko beste kideekin harremanak izateko eta elkartzeko eskubidea;
- V. Kultura propioa mantendu eta garatzeko eskubidea.
- VI. Eta, 1966ko Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko itunean eta data bereko Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Itunean aitortutako eta hizkuntza-edukia duten eskubide guztiak.

2.- Deklarazio honek kontsideratzen du ezen, hizkuntza-taldeen eskubide kolektiboak aurreko lerroaldean jasotakoez gain, eta 2.2. artikuluko zehaztapenen arabera, honako hauetara ere zabal daitezkeela:

- I. Hizkuntzaren eta kultura propioaren irakaskuntza izateko eskubidea;
- II. Zerbitzu kulturalak edukitzeko eskubidea;
- III. Taldearen hizkuntzak eta kulturak hedabideetan presentzia orekatua izateko eskubidea,

IV. Erakunde ofizialetan eta harreman sozio-ekonomikoetan
nork bere hizkuntzan harrera izateko eskubidea.

3.- Arestian aipatutako pertsonen eta taldeen eskubideak ezin daitezke oztopo izan haien eta hizkuntza-komunitate hartzailearen arteko erlazorako eta integratiorako, ez eta hizkuntza-komunitateari edota bere kideei berezko hizkuntza lurralde osoan publikoki erabiltzeko eskubidean ezelango muga jartzeko ere.

4. artikulua

1.- Deklarazio honek ezartzen du bere ez den hizkuntza-komunitate baten lurraldera lekualdatzen eta bertan kokatzen diren pertsonen eskubidea eta betebeharra dutela bertan integrazio-harremanak izateko. Integratitzat hartzen da pertsona horien sozializazio osagarria, non jatorrizko ezaugarri kulturalak gorde ahal izango dituzten, baina hartzen dituen gizartearekin nahikoa erreferentzia, balore eta portaera partekatuko dituzten, gizartearen funtzionamendu orokorrak komunitate hartzailearen kidearenak baino zailtasun gehiago izan ez ditzan.

2.- Deklarazio honek ulertzen du asimilazioa, hau da, pertsonak gizarte hartzailean akulturizatzea, alegia, jatorrizko ezaugarri kulturalen ordeztuak gizarte hartzailearen berezko erreferentzia, balore eta portaerak hartzea, ez dela inola ere derrigortua izango, askatasun osoz egindako aukeraren ondorioa baizik.

5. artikulua

Deklarazio bonen funtsean dagoen printzipioa da hizkuntza-komunitate guztiak eskubide berdinak jabe direla, kontuan izan gabe haien izaera juridikoa edo politikoa zein den, alegia, hizkuntza ofizialarena, erregionalarena edo gutxiengoaren hizkuntza-rena. Erregio hizkuntza edo gutxiengoaren hizkuntza bezalako

izendapenak ez dira testu honetan erabiltzen; izan ere, kasu batzuetan erregio hizkuntza edo gutxiengoen hizkuntza bezala aitortua izateak eskubide horiek egikaritzea erraz badezakeen ere, horiek eta antzeko izendapenak usuegi erabiltzen dira hizkuntza-komunitate baten eskubideak murrizteko asmoz.

6. artikulua

Deklarazio honek baztertu egiten du hizkuntza bat lurralde bateko hizkuntza propiotzat hartzea horretarako arrazoi baka-rra estatuaren hizkuntza ofiziala izatea edo lurralde horretan administrazioaren edo kultur jarduera jakin batzuen hizkuntza gisa erabiltzeko tradizioa izaten baldin bada.

LEHEN TITULUA

Printzipio orokorrak:

7. artikulua

1.- Hizkuntza guztiak dira nortasun kolektibo baten adierazpen, bai eta irrealita-tea modu desberdinean hautemateko eta deskribatzeko tresna ere; hortaz, funtzio guztietan garatu ahal izateko baldintzak izan behar dituzte.

2.- Hizkuntza bakoitza kolektiboki eraikitako errealitatea da, eta komunitate baten barruan norberaren erabilerarako erabilgarri bilakatzen da, kohesioaren, identifikazioaren, komunikazioaren eta adierazkortasun sortzailearen tresna gisa.

8. artikulua

1.- Hizkuntza-komunitate orok eskubidea du baliabide propioak antolatu eta kudeatzeko, gizarte-funtzio guztietan bere hizkuntzaren erabilera ziurtatzeko helburuarekin.

2.- Hizkuntza-komunitate orok eskubidea du hizkuntzaren transmisioa eta hizkuntzaren etorkizuneko proiektzioak bermatzeko beharrezko baliabideak izateko.

9. artikulua

Hizkuntza-komunitate orok eskubidea du zeinek bere hizkuntza-sistema kodetzeko, estandarizatzeko, garatzeko eta sustatzeko, derrigorturiko edo induzituriko interferentziarik gabe.

10. artikulua

1.- Hizkuntza-komunitate guztiek eskubide berdinak dituzte.

2.- Deklarazio honek arbuiagarritzat jotzen ditu hizkuntza-komunitateen aurkako diskriminazio guztiak, besteak beste, subiranotasun politikoan, egoera sozial edo ekonomikoan bezalako irizpideetan oinarriturikoak, edota hizkuntza horiek lortu duten kodetze, eguneratze edo modernizatze mailaren arabera.

3.- Berdintasun hori benetakoa izan dadin ezinbesteko neurriak hartu beharko dira, beti ere berdintasun-printzipioa aplikatuz.

11. artikulua

Hizkuntza-komunitate orok eskubidea du Deklarazio honetan jasotako eskubideen egikaritzea bermatzen duten zuzeneko edo alderantzizko itzulpenerako baliabide guztiak eskura izateko.

12. Artikulua

1.- Gizaki orok eskubidea du alor publikoko jarduera guztiak bere hizkuntzan egiteko, baldin eta bera bizi den lurraldeko berezko hizkuntza bada.

2.- Gizaki orok eskubidea du alor pertsonal eta familiarte-koan bere hizkuntza erabiltzeko.

13. artikulua

1.- Gizaki orok eskubidea du bizi den lurraldeko berezko hizkuntza ikasteko.

2.- Gizaki orok eskubidea du eleaniztun izateko, eta bere garapen edo mugikortasun sozialerako lagungarrien iruditzen zaion hizkuntza ikasteko, beti ere Deklarazioak lurraldeko berezko hizkuntzaren erabilera publikoari begira ezarritako bermeak kaltetu gabe.

14. artikulua

Deklarazio honetako xedapenak ezin dira interpretatu edo erabili hizkuntza bat bete lurraldean erabiltzeko barne mailan edota nazioartean gara daitezkeen araubide lagungarriagoen kontra.

BIGARREN TITULUA

Hizkuntza-eraentza orokorrak:

1. ATALA

Administrazio publikoa eta organo ofizialak:

15. artikulua

1.- Hizkuntza-komunitate orok eskubidea du bere hizkuntza ofizialtzat erabilia izan dadin bere lurraldearen barruan.

2.- Hizkuntza-komunitate orok eskubidea du jardun judizial eta administratiboak, dokumentu publiko eta pribatuak, eta erregistro publikoetan egindako inskripzioak lurraldeko berezko hizkuntzan egiten direlarik, baliozkoak eta eraginkorrak izan daitezen, eta inork ezin dezan argudia hizkuntza hori ez dakienik.

16. artikulua

Hizkuntza-komunitate bateko edozein kidek eskubidea du bere hizkuntzan erlazionatzeko eta harrera izateko hizkuntza

hori berezkotzat duen lurraldean bere baitan dauden botere publikoen, eta administrazio-dibisioen zerbitzuen aldetik, zentralak, lurraldekoak, tokikoak edo lurraldez gaindikoak izan.

17. artikulua

1.- Hizkuntza-komunitate orok eskubide du lurraldeko hizkuntzan eskura izateko eta eskuratzeko dokumentazio ofizial guztia, paperezko inprimaki eta ereduak, euskarri informatikoan daudenak edo bestelakoak, eta halaxe eskainiko zaizkie herritarrei hizkuntza hori berezkoa den lurraldeetan gertatzen diren harremanetan.

2.- Botere publikoek eskura izan behar dituzte lurraldeko hizkuntzetan formularioak, paperezko inprimaki eta ereduak, euskarri informatikoan daudenak edo bestelakoak, bai eta hizkuntza hori berezkoa den lurraldeei dagozkien zerbitzuetan herritarrei eskaini ere.

18. artikulua

1.- Hizkuntza-komunitate orok eskubidea du berari dagozkion legeak eta gainerako arau juridikoak lurraldearen berezko hizkuntzan argitara daitezen.

2.- Botere publikoek, bere jarduera-eremuaren barruan, lurraldearen arabera historikoa den hizkuntza bat baino gehiago dutenean, hizkuntza horietan argitaratu behar dituzte legeak eta gainerako arau juridikoak, kontuan hartu gabe hiltunek beste hizkuntzak ulertzen dituztenentz.

19. artikulua

1.- Ordezkarien Batzarrek ofizialtzat hartu behar dituzte ordezkatzen dituzten lurraldeetan historian zehar hitz egindako hizkuntza edo hizkuntzak.

2.- Kokalekua barreiatuta duten eta 1. artikuluko 4. atalean aipatutako komunitateen hizkuntzak ere hartzen ditu eskubide honek.

20. artikulua

1.- Gizaki orok eskubidea du justizia-auzitegiak kokatuta dauden lurraldean historian zehar hitz egindako hizkuntza ahoz eta idatziz erabiltzeko. Auzitegiek lurraldeko berezko hizkuntza erabili behar dute barne-jardunetan, eta estatuaren antolaketa judizialaren ondorioz prozesuak hasierako lurraldetik kanpo jarraitu behar badu, hasierako hizkuntzari eutsi beharko zaio.

2.- Edozein kasutan ere, gizaki orok eskubidea du ulertzen duen eta hitz egin dezakeen hizkuntza batean epaitua izateko, bai eta doako interprete bat izateko ere.

21. artikulua

Hizkuntza-komunitate orok eskubidea du erregistro publikoetako idazpenak lurraldeko berezko hizkuntzan egin daitezen.

22. artikulua

Hizkuntza-komunitate orok eskubidea du notario-dokumentuak edota fede publikoa ematen duten funtzionarioak zilegitutakoak, notarioaren edo funtzionarioaren egoitza kokatuta dagoen lurraldeko berezko hizkuntzan idatziak izateko.

2. ATALA

Hezkuntza:

23. artikulua

1.- Hezkuntzak lagundu egin behar du lurraldeko hizkuntza-komunitatearen autoadierazpen linguistikoaren eta kulturalaren gaitasuna indartzen.

2.- Hezkuntzak lagundu egin behar dio lurraldeko hizkuntza-komunitateak hitz egiten duen ahozko hizkuntzaren mantentzeari zein garapenari.

3.- Hezkuntza hizkuntza- eta kultura-aniztasunaren zerbitzura egongo da beti, bai eta mundu osoko hizkuntza-komunitateen arteko harreman harmoniatsuen alde ere.

4.-Aurreko printzipioen karira, gizaki orok eskubidea du edozein hizkuntza ikasteko.

24. artikulua

Hizkuntza-komunitate orok eskubidea du erabakitzeke zein mailatan egongo den bere hizkuntza, hala irakas-hizkuntza nola irakasgai gai, ikasmaila guztietan: haur hezkuntza, lehen mailako hezkuntza, bigarren hezkuntza, lanbide heziketa, unibertsitatea eta helduen hezkuntza.

25. artikulua

Hizkuntza-komunitate orok eskubidea du beharrezkoak dituen baliabide pertsonal eta material guztiak eskura izateko, lurralde barruko irakaskuntzaren maila guztietan bere hizkuntzak nahi duen presentzia-maila lor dezan: modu egokian hezitako irakasleak, metodo pedagogiko egokiak, eskuliburuak, diru-iturriak, aretoak eta ekipamenduak, baliabide teknologiko tradizionalak zein berritzaileak.

26. artikulua

Hizkuntza-komunitate orok eskubidea du bere kide guztiei berezko hizkuntza menderatzeko bidea emango dien hezkuntza izateko, ohiko erabilerei dagozkien gaitasun guztiak barne, bai eta ezagutu nahi den beste hizkuntza baten ezagutza osoa menderatzeko ere.

27. artikulua

Hizkuntza-komunitate orok eskubidea du bere kide graztiei berezko kultur ohiturekin loturiko hizkuntza guztiak ikasteko aukera emango dien heziketa izateko, esate baterako, kultura-zein erlijio-hizkuntzak, aitzinean komunitate horren eguneroko hizkuntza gisa erabiliak izan zirenak.

28. artikulua

Hizkuntza-komunitate orok eskubidea du bere kide guztiei kultur ondarearen (historia, geografia, literatura eta kultura propioaren beste adierazpenak) ezagutza sakonaz jabetzeko heziketa izateko, eta halaber, ezagutu nahiko luketen beste edozein kultura ahalik eta hobekien menderatzeko.

29. artikulua

1.- Gizaki orok eskubidea du hezkuntza bera bizi den lurraldeko berezko hizkuntzan jasotzeko.

2.- Eskubide horrek ez du alde batera uzten beste hizkuntza-komunitateekin komunikatzeko tresnatzat erabil daitekeen beste edozein hizkuntzaren ahozko zein idatzizko ezagutza ikasteko eskubidea.

30. artikulua

Hizkuntza-komunitate bakoitzaren hizkuntza eta kultura unibertsitate mailako ikaskuntzarako eta ikerketarako gaiak izango dira.

III. ATALA

Onomastika:

31. artikulua

Hizkuntza-komunitate orok eskubidea du esparru eta eremu guztietan bere sistema onomastikoari eusteko eta erabiltzeko.

32. artikulua

1.- Hizkuntza-komunitate orok eskubidea du bere lurraldeko toki-izenak bere hizkuntzan erabiltzeko, ahoz eta idatziz, esparru pribatuan, publikoan nahiz ofizialetan.

2.- Hizkuntza-komunitate orok eskubidea du toki-izen autoktonoak finkatzeko, gordetzeko eta berrikusteko. Toki-izen horiek ezingo dira arbitrarioki ezabatu, ez eta aldatu edota egokitu ere; era berean, ezin izango dira gorabehera politikoen edo bestelako aldaketen arabera ordeztu.

33. artikulua

Hizkuntza-komunitate orok eskubidea du bere burua berezko hizkuntzan izendatzeko. Hortaz, beste hizkuntzetara egingdako itzulpenetan, izendapen nahasgarriak eta erdeinuzkoak saihestu beharko dira.

34. artikulua

Gizaki orok eskubidea du bere antroponimia berea duen hizkuntzan eta eremu guztietan erabiltzeko; eta beste sistema grafiko batera eraman behar denean, ahalik eta transkripzio fonetiko fidelenean egin dadin.

IV. ATALA

Hedabideak eta teknologia berriak:

35. artikulua

Hizkuntza-komunitate orok eskubidea du erabakitzeko zein mailatako presentzia izan behar duen bere hizkuntzak bere lurraldeko hedabideetan, hala tokiko eta tradizionaletan, nola irismen handiago eta teknologia aurreratuagokoetan, erabiltzen den hedapen- edo igorpen-sistemari begiratu gabe.

36. artikulua

Hizkuntza-komunitate orok eskubidea du behar diren baliabide pertsonal eta material guztiak eskura izateko lurraldeko hedabideetan, bere hizkuntzaren eta kultura autoadierazpenaren presentzia nahi den mailakoa izan dadin: egoki hezitako langileria, diru-iturriak, aretoak eta ekipamenduak, ohiko baliabide teknologikoak eta berritzaileak.

37. artikulua

Hizkuntza-komunitate orok eskubidea du hedabideen bidez bere kultur ondareari buruzko (historia, geografia, literatura eta kultura propioaren beste adierazpenok) ezagutza sakona jasotzeko; bai eta ezagutu nahi duen beste kultura baten ahalik eta ezagutza handiena jasotzeko ere.

38. artikulua

Hizkuntza-komunitateen hizkuntza eta kultura guztiek tratatu orekatu ez baztertzaila jaso behar dute mundu osoko hedabideetako edukietan.

39. artikulua

Deklarazio honetako 1. artikuluko 3. eta 4. ataletan azaldutako komunitateek, bai eta artikuluko 5. atalean azaltzen diren taldeek ere, eskubidea dute egoitza finkatuta duten edo lekualdatzen diren lurraldeko hedabideetan beren hizkuntzek trataera orekatua izan dezaten. Eskubide horren egikaritzea bateratu egin beharko da lurraldeko beste talde edota komunitateen eskubideen egikaritzarekin.

40. artikulua

Hizkuntza-komunitate orok eskubidea du bere hizkuntza-sistemari egokitutako informatika-ekipamenduak, eta bere hizkuntzako tresneria eta produktuak eskura izateko, teknologia horiek eskaintzen duten ahalmen guztien onura atera ahal izateko, bai autoadierazpenari, hezkuntzari, argitarapenari edo itzulpenari dagokienez, bai eta, oro har, informazioaren tratamenduari eta kultur hedapenari dagokionez ere.

V. ATALA

Kultura:

41. artikulua

1.- Hizkuntza-komunitate orok eskubidea du bere hizkuntza kultur adierazpen guztietan erabiltzeko, sostengatzeko, eta bultzatzeko.

2.- Eskubide honen egikaritzak erabateko gauzatze-bidea izango du, eta beraz, atzerriko kultura batek ezin izango du komunitate baten espazioa hartu.

42. artikulua

Hizkuntza-komunitate orok eskubidea du berezko mundu kulturala erabat garatzeko.

43. artikulua

Hizkuntza-komunitate orok eskubidea du bere hizkuntzan ekoitzitako lan guztietara iristeko.

44. artikulua

Hizkuntza-komunitate orok eskubidea du kulturarteko programetara iristeko, behar adinako informazio-hedapenaren bi-

dez. Halaber, eskubidea du laguntza eman dakien atzerritarrentzako ikasketa-jarduerei, itzulpenei, bikoizketari, postsinkronizazioari, azpigitulugintzari eta antzeko ekintzei.

45. artikulua

Hizkuntza-komunitate orok eskubidea du lurraldeko berezko hizkuntzak toki nagusia har dezan kultur gertakarietan eta zerbitzuetan, hala nola liburutegiak, bideotekak, zinemak, antzokiak, museok, artxiboak, informatika-ekoizpena, folklorea, kulturaren industriak, eta kultur bizitzatik sortutako beste gertakari guztiak.

46. artikulua

Hizkuntza-komunitate orok eskubidea du bere ondare linguistiko eta kulturala zaintzeko, bai eta haien adierazpen materialak ere, hala nola dokumentu-fondoak, arte- eta arkitekturalanak, monumentu historikoak, eta hizkuntzaren agerpen epigrafikoak.

VI. ATALA

Alor sozio-ekonomikoa:

47. artikulua

1.- Hizkuntza-komunitate orok eskubidea du lurralde barruko jarduera sozio-ekonomiko guztietan bere hizkuntzaren erabilera xedatzeko.

2.- Hizkuntza-komunitate bateko edozein kidek eskubidea du bere hizkuntzan eskura izateko lanbide-jarduera egikaritzeko baliabide guztiak, hala nola kontsultarako dokumentuak eta liburuak, jarraibideak, formularioak eta informatika-ekipamenduak-tresnak eta -produktuak.

3.- Alor sozio-ekonomikoan beste hizkuntzen erabilera justifika dezakeen arrazoi bakarra egiten den lanbide-jardueraren izaera izango da. Inolaz ere ezin onar daiteke berriki etorria den hizkuntzak lurraldeko berezko hizkuntza ezkutatzea edo horren erabilera estaltzea.

48. artikulua

1.- Hizkuntza-komunitatearen lurraldean, herritar orok eskubidea du bere hizkuntza balio juridiko osoz erabiltzeko edozein motatako salerosketa ekonomikotan, esaterako, ondasunen eta zerbitzuen salerosketak, banku-eragiketak, aseguruak, lan-kontratuak eta abar.

2.- Ekintza pribatu horietako ezein klausulak ezin du baztertu edo mugatu lurraldeko berezko hizkuntzaren erabilera.

3.- Gizaki orok eskubidea du bere hizkuntza-komunitatearen lurraldean bere hizkuntzan eskura izateko aipatutako eragiketak egiteko behar diren agiriak, hala nola inprimakiak, txekeak, kontratuak, fakturak, ordainagiriak, emate-agiriak, eskaerak eta gainerakoak.

49. artikulua

Gizaki orok eskubidea du bere hizkuntza-komunitatearen lurraldean bere hizkuntza erabiltzeko edozein motatako erakunde sozio-ekonomikotan, hala nola, laboralak, sindikalak, patronalak, lanbidekoak eta gremioak.

50. artikulua

1.- Hizkuntza-komunitate orok eskubidea du bere hizkuntzak presentzia nagusia izan dezan publizitatean, errotulazioan, kanpo-seinaleztapenean eta lurraldearen irudi orokorrean.

2.- Hizkuntza-komunitatearen lurraldean gizaki orok eskubidea du lurraldean kokatutako merkataritza-establezimenduek eskaintzen dituzten produktuez eta zerbitzuez ahozko zein idatzizko informazio osoa bere hizkuntzan jasotzeko, hala nola, erabilera-jarraibideak, etiketak, osagai-zerrendak, publizitatea, bermeak eta gainerakoak.

3.- Pertsonen segurtasunari dagozkion argibide publiko guztiak hizkuntza-komunitatearen hizkuntzan, gutxienez, adieraziko dira, inoiz ere ez beste edozein hizkuntzatan idatzitakoak baino maila kaskarragoan.

51. artikulua

1.- Gizaki orok eskubidea du lurraldeko berezko hizkuntza erabiltzeko enprekin, merkataritza-establezimenduekin eta erakunde pribatuekin dituen harremanetan, eta hizkuntza berean artatua izan edota erantzuna jasotzeko.

2.- Gizaki orok eskubidea du, bezero, kontsumitzaile edo erabiltzaile gisa, jendeari zabaldutako establezimenduetan informazioa lurraldeko berezko hizkuntzan jasotzeko, hala ahoz nola idatziz.

52. artikulua

Gizaki orok eskubidea du lan-jarduerak eta lanbideak lurraldeko berezko hizkuntzan egiteko. Salbuetsi egingo dira lanpostuari dagozkion funtzioek beste hizkuntzen erabilera eskatzen duten kasuak, esate baterako, hizkuntza-irakasleak, itzultzaileak, turismo-gidariak.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehena:

Botere publikoek Deklarazio honetan aldarrikatutako eskubideak aplikatzeko neurri egoki guztiak hartu beharko dituzte, zeinek bere jardun-eremuan. Zehazkiago, nazioarteko funtsak eskura jarri beharko dira, baliabide eskasian nabar-menki dauden komunitateen hizkuntza-eskubideen egikaritza sostengatzeko. Halaber, botere publikoek beharrezko sostengu guztia eman beharko dute hainbat komunitateren hizkuntzak kodetzeko, transkribatzeko, irakasteko eta administrazioan erabiltzeko.

Bigarrena:

Botere publikoek zainduko dute Deklarazio honek agertzen dituen agintariak, erakundeak eta pertsonak dokumentu hone-tatik ondorioztatzen diren eskubideen eta betebeharrak korrelati-boen informazioa jaso dezaten.

Hirugarrena:

Botere publikoek aurreikusi beharko dituzte, indarrean den legerien arabera, Deklarazio honetako hizkuntza-eskubideak urratzearen ondoriozko zehapenak.

AZKEN XEDAPENAK

Lehena:

Deklarazio honek Hizkuntzen Kontseilua sortzea proposatzen du Nazio Batuen Erakundearen barruan. Nazio Batuen Batzar Orokorrari dagokio Kontseilu hori sortzea, ha-

ren eskumenak zehaztea, kideak izendatzea, eta Deklarazio honetan aitortutako eskubideak egikaritzerakoan hizkuntza-komunitateak babestuko dituen nazioarteko zuzenbideko erakundea xedatzea.

Bigarrena:

Deklarazio honek Hizkuntza Eskubideen Munduko Batzordea sortzea gomendatu eta sustatzen du. Batzordea ez-ofiziala izango da, izaera aholku-emailea izango du, eta Gobernu Kanpoko Erakundeek eta hizkuntza-zuzenbidearen alorreko erakundeek osatuko dute

Bartzelona, 1996ko ekainaren 6a.